

ASUN GARIKANO IRURETAGOIENA

Euskaltzaindian sartzea

Gasteiz, 2024-VI-29

GARIKANO IRURETAGOIENA, Asun
Euskaltzain osoa

Mendi-zelaiak estali baino lehen

Euskaltzainburu jauna eta euskaltzain kideak,
Gasteizko Udaleko alkatea,
Eusko Jaurlaritzako lehenengo lehendakariordea,
gainerako agintariak,
senideak eta lagunak, egun on guztioi:

Duela hilabete batzuk nik inoiz espero gabekoa gertatu zenean, hau da, Euskaltzaindiak euskaltzain izendatu ninduenean, sarrera-hitzaldia non egin behar nuen galdezka hasi zitzaizkidan ingurukoak. Ez zidaten galdetzen *zertaz* hitz egin behar nuen; horrek bigarren mailako kontua zirudien. Sarrera-hitzaldia non egin behar nuen, hori zen galdera: Tolosan, han jaioa naizenez gero?, Zaldudon?, Gasteizen? Zer aukeratu nuen esan beharrik ez dago. Jakin ezazue pozez betetzen nauela gaurko ekitaldi hau ia berrogei urtez bizileku eta lantoki izan dudana Gasteizko hiri maite honetan egiteak. Irakasleak euskalduntzeko IRALE programaren barruan ikasle eta *bide-erakusle* izan ditudan ehunka irakasle arabar gogoan nituela hartu nuen erabakia. Gogoan hartzeko modukoa iruditzen zait, izan ere, Eusko Jaurlaritzak iazko martxoan plazaratutako VII. Ikerketa Soziolinguistikoak¹ erakutsi ziguna, alegia, euskaldunen ehunekoa hirukoiztu egin dela Araban 1991tik hona. Neurri handi batean, ehunka irakasle horien ahaleginari esker lortu da aurrerapen handi hori. «Izotz-ondoko eguzki / neguaren barre...».

Aurrekoei omena

Batzuek gogoratuko duzuen bezala, Henrike Knörr irakasle estimatua izan zen sarrera-hitzaldia Gasteizen egin zuen lehen euskaltzaina. 1978ko apirilaren 28an izan zen. Baina askoz ere lehenagokoa da Arabaren eta Euskaltzaindiaren arteko lotura. Arabar bat izan zen euskara zaintzeaz arduratuko zen erakunde baten beharra idatziz adierazi zuen aurrenekoa. Jose Paulo Ulibarri zuen izena, eta Okondoko semea zen. 1823an, Oñatin Euskaltzaindia sortu baino ia ehun

¹ https://www.argaia.eus/fitxategiak/ckfinder/files/VII_INKESTA_SOZIOLINGUISTIKOA_laburpena.pdf

urte lehenago, Ulibarrik bertsotan adierazi zion Pedro Novia de Salcedori euskal akademia baten beharra:

*Ogueta lau gizon
bear dira icentau
Guernicaco bazarrean
euzkeraren ganean
eguiteco aleguiñ au.*

1919an eratu zen Ulibarrik eskatzen zuen erakundea. Beste arabar batek sortu zituen haren araudiak: Raimundo Olabidek. Eta urte horretan Euskaltzaindiaren lehenbiziko batzarra egin zenean Donostian, Anjel Apraiz arabarra zela idazkari, Olabide euskaltzain izendatu zuten.

Jose Paulo Ulibarri, Raimundo Olabide, Anjel Apraiz, Henrike Knörr eta Araban euskarak aurrera egin dezan lan egin duzuen guztiok jaso ezazue gaurko arabar euskaltzaleen esker ona.

Esan dudan bezala, Henrike Knörr izan zen sarrera-hitzaldia Gasteizen egiten lehena, eta Patxi Goenaga jauna bigarrena, 1995. urtean. Hark utzitako aulkia hartzera noa ni orain, 21.a, eta haren gorazarrea egitea agintzen didate ohiturak eta gizalegeak. Goenaga jaunak ardura handiko postuak bete ditu Euskal Herriko Unibertsitatean, Eusko Jaurlaritzan eta baita, noski, Euskaltzaindian ere. Baina nago nire belaunaldiko filologoentzat Patxi Goenaga, batez ere, 1978an argitaratutako *Gramatika bideetan* izeneko liburuaren egilea dela. Molde zaharreko analisi gramatikaletara ohituta geundenontzat, iraultza txiki bat izan zen Noam Chomskyren gramatika sortzailearen printzipioak euskarara aplikatzen zituen liburu hura, eta garrantzi berezia izan zuen gerora hizkuntza-irakasle edo itzultzaile-edo editore-lanetan jardungo genuenontzat.

Emeritu bilakatu arte Goenaga jaunarena izan den 21. aulkia hartzera noa, beraz, Euskaltzaindian. Handia da ohorea, baina sentitzen dudana erantzukizuna ez da txikiagoa.

Gaurko hitzaldiaren gaiari heldu aurretik, utzidazue naizena izateko bidean lagundu didatenak aipatzen, labur-labur. Zerrendan buru, Joseba, Elisabet eta Jone Irazu. Hurrena, Andoni Garikano. Umetan ikasi nuen lehen olerkia harekin ikasi

nuen. Lizardiri jasotako oroitarrian zegoen zizelkatuta, eta beti irakurtzen genuen handik pasatzen ginenean Urkizurako bidean:

Oi, zein dan ituna
beera-bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!

Garikano familia osoa ere aipatu nahi dut. Altxor preziatu bat bezala zaindu dute beti euskara. Diktaturako urte ilunetan, beste euskaldun eta beste euskara batzuen oihartzunak zekartzaten abestiekin betetzen zituzten bazkalondoak:

Iruten ari nuzu
kilua gerrian
ardura dudalarik
nigarra begian.

Eta zerrendan azken, baina oroimenean aurren, Alkizako «hiztun ederrena», Migelenea etxeko Maria Jesus Iruretagoiena. Guk institutuan edo unibertsitatean jasotako hizkuntza-eskoletan, bi hitzekin erabakitzen zen esaldi baten edo testu baten kalitatea: *zuzen* idatzita zegoen edo *oker* idatzita zegoen. Baina anaia Antton eta biok literatura itzultzen hasi eta hari kontsultaren bat egiten genionean, beste hitz batzuk erabiltzen zituen berak, guk irakurritako pasarteak —*zuzen-zuzenak* gramatikaren ikuspegitik— ontzat emateko edo baztertzeko: «Ederki esana dago» edo «Hori etzazu hola jarri, oso itsusi dago». Gramatika aldetik zuzena izateak ez zuen testua salbatzen. Paradoxikoa badirudi ere, berak, euskaldun «larrekoak», zuzentasuna baino zerbaite gehiago eskatzen zion hizkuntzari. Hizkuntzaren ikuspegi estetikoa zuen, ez gramatikala. Ikasbide ona izan zen niretzat.

Atzera begiratzen dudanean, egin ditudan lanetan —literatura itzultzean, idaztean, bestek idatzitako liburuak editatzean—, prosa zuzenaren eta prosa onaren arteko terreno labain arautu gabeko horretan ikusten dut neure burua, testuaren argitasuna, bizitasuna, musikaltasuna, hitz zehatza (*le mot juste*)... bilatu nahian. Nire belaunaldiko literatura-itzultzaileek ondo ulertuko dute zertaz ari naizen. Literatura unibertsaleko obrarik ederrenak itzultzea suertatu zaigu, eta bakoitzaren idazkera erreproduzitzen saiatu gara euskarari gehiegizko bortxarik egin gabe. Zenbaitetan, ederki kostata.

Itzuli nuen aurreneko nobela, Robert Louis Stevenson *Treasure Island*, euskaraz *Altxor uhartea*, laurogeita hamar hitz dituen esaldi batekin hasten zen. Ondo esan dut, laurogeita hamar hitz. Nola eman hori irakurri ahala ulertuko zen esaldi bakarrean? Stevensonen prosa bizi eta diafanora hurbilduko zen euskarazko ordaina behar nuen, narratzailea kontatzen ari zena *ikusten* utziko ziona irakurleari. Hogeigarren edo berrogeigarren bertsioarekin ari nintzela, beste askotan bezala, Paul Valéryren hitzek erreskatatu ninduten: «Poema bat ez da inoiz amaitzen, abandonatu egiten da».

Ontzat eman nuen berrogeigarren bertsio hartan, Jim Hawkins narratzaileak hitz hauekin hasten du bere abenturaren kontakizuna:

Nolaz eta Trelawney jaunak, Livesey doktoreak eta gainerako gizaseme horiek Altxor Uharteko xehetasun guztiak, hasieratik azkenera arte, idazteko eskatu didaten, ezer ezkutuan gorde gabe uhartearen posizioa salbu, hain zuzen ere altxorraren parte bat oraindik han dagoelako, nire luma hartu, graziazko 17.....garren urtean, eta atzerantz noa gure aitak Admiral Benbow ostatuan buru egiten zuen garaietara, eta itsasgizon zahar beltzaran hark, bere sable orbain eta guzti, gure teilatupean ostatu hartu zuen estreinako egunera.

Baina... urrutitxo nabil. Esker ona adierazten ari nintzen eta *Altxor uhartean* amaitu dut. Ez naiz hona etorri Hispaniola goletak altxor bila egin zuen bidaiaz hitz egitera. Beste ontzi bat izango dut gaur hizpide: Euskaltzaindiak aste honetan bertan plazaratu —itsasoratu?— duen *Noeren ontzia*. Aurren-aurrena, egitasmoaren ezaugarriak aipatzen hasi baino lehen, azaldu dezadan zergatik erabaki zuen Euskaltzaindiak Noeren antzera jokatzea, eta lehengo eta oraingo euskal testuak uhaldetik salbatuko zituen ontzi bat egitea.

Egun batez, konpainia on batean nengoela...

Egun batez, konpainia on batean nengoela, ekarri zuen solasak, izan zen perpausa, ez zuela deusek ere hainbat kalte egiten gure gazteek euskararekin duten harremanerako, eta ez euskararen beraren etorkizunerako ere, nola hizkuntza bere

gordinean irakasteak, arau, deklinabide-taula eta aditz-paradigma beldurgarriekin asaldatur gaztetxoek burmuin samur, minbera eta delikatuak. Eta on zitekeela, Noe patriarkak uholdearen aurretik bezala, ontzi bat egitea, eta hartan jasotzea euskarazko ondare literarioaren alerik printzipalenak, esanguratsuenak eta ederrenak, haien bitartez ezagut ditzaten gazteek gure aurrekoen bizimoldeak eta lanak. Konpainia berean deliberatu zen lehenbailehen ekin behar zitzaiola lan horri, globalizazioaren uholdeak mendi-zelaiak estali baino lehen...

Axularren prosa dotorea utzi eta XXI. mendeko hitz arruntetan esanda, gure literatura-ondarea erreskatatzea –edo, zabalago esanda, gure *kultura*-ondarea erreskatatzea–, hori zen erronka; eta bizirik iraunarazteko ahalegina egitea denborarik galdu gabe. Izan ere, egoerak ez du, itxura guztien arabera, «gerotik gerora» ibiltzeko aukerarik ematen. «Gaizki ari gara», «akulturazio-prozesu batean sartuta gaude», dio zurrumurru gero eta ozenagoak. Badakigu –aspaldi idatzi zuen Shakespearek– txirula bat dela zurrumurrua: «Susmoek, inbidiek, uste okerrekin ematen diote haize, eta, hain tresna ximplea eta erraza denez gero, edozeinek jo dezake»². Baina, horrelakoa ote da gure artean dabilen zurrumurrua? Ireki ditzagun belarriak, eta entzun zer dioen. Jakin dezagun, pedagogoei erakutsi diguten termino batetik abiatuta, zein den zurrumurruari haizematen ari zaion «arazo-egoera».

Arazo-egoera: hizkuntza eta kultura-ondarea kolokan

Azkenaldi honetan, xuxurla hutsa zena zurrumurru ozen bihurtu da: gazte askok euskara jakin bai baina ez dute erabiltzen, horietariko batzuek ez dute euskaraz hitz egin nahi, ez dute euskararekiko atxikimendurik sentitzen, euskara arbuizatzen dute...

Baditugu euskararen erabilerari buruzko datuak. Baita zenbait gaztek euskararen aurrean duten jarrera motelari buruzko datuak ere, inkestetan jasoak. Atxikimendu falta horren arrazoiak aletzen hasi gabe, hezkuntza-esparruarekin lotutako bi aipatuko ditut hemen: euskal curriculumaz ezartzerakoan erakutsi dugun ahulezia eta, horrekin batera, Euskara eta Literatura irakasgaiak

² William Shakespeare, *Enrique IV.a*, II. zatia. Calixto Bieitok zuzendutako *Erresuma, Kingdom, Reino* antzezlanaren zatia. 2022ko otsailaren 27an estreinatu zen obra Bilboko Arriaga antzokian. Itzultzaileak: Bernardo Atxaga eta Asun Garikano.

hizkuntzari eman diogun protagonismo erabatekoa; hainbestearainokoa, non normaltzat hartzen den, adibidez, euskararekin oso justu dabiltzan ikasleek orduak pasatzea euskalkien ezaugarri morfofonologikoak buruz ikasten.

Inkestak aipatu ditugu. Bada, presta dezagun beste bat, ikasketa guztiak euskaraz egin dituzten gazteei zuzendua. Inkesta zabalago bat, hizkuntzari buruzko galderak ez ezik, kulturari buruzkoak ere –euskal kulturari buruzkoak– jasoko dituen. Galdera ximple-ximpleak: Zer eratakoa, zer generotakoa da euskaraz argitaratutako lehen liburua, *Linguae Vasconum Primitiae*? Nor izan zen Bonaparte printzea, edo Bizenta Mogel, edo Jose Migel Barandiaran, edo Mikel Laboa? Zer gertatu zen Artxanda mendian 1937ko ekainean? Zer dira maskaradak? Zer da diglosia?

Alde askotatik iristen diren zurrumurruek egia badiote, ez du ematen galdetegiaren emaitzak oso bihotz-altxagarriak izango liratekeenik. Hizkuntzan jarri dugu indar guztia, ahaztuta hizkuntza tresna dela, unibertso batera sartzeko aukera ematen duen giltza. Aspaldi ohartarazi gintuen Koldo Mitxelena joko horren moztasunaz: «Lotsagarri da beti hizkuntzaz mintzatzen aritzea, hizkuntza horren bitartez beste sakonagoko zerbait adierazi beharrean»³. Abisuak abisu, halako *hybris* filologiko batek jota jarraitzen dugu. Ikastetxe edo euskaltegi-tako pasilloetatik ibili denak badu horren berri, eta Allen Ginsberg-en «Ulua» poemaren tonu epikoan konta lezake bere begiz ikusitakoa:

Gure belaunaldiko buru argienak ikusi ditut amore ematen
marratxoaren kontrako batailan, totelka mintzatzen
erdarakada eta kalko okerren beldurrez,
minaz jositako eremuan arnasari eusten,
hurrengo akatsa noiz baino noiz lehertuko...

Salbuespenak salbuespen, ez gara ondo ari euskal curriculum-a ezartzerakoan. Hori dio zurrumurru ozenak, eta hori da arazo-egoera. Euskal Autonomia Erkidegoan azken hogeitun urteotan Hezkuntza Sailetik atera diren dokumentu garrantzitsu guztietan jasota dago derrigorrezko eskolaldiko eta Batxilergoko irakasgaiek euskal kulturaren eta hizkuntzaren dimentsio espezifikoak txertatu

³ Mitxelena, Koldo (1972). *Mitxelena idazlan hautatuak*. [Patxi Altunaren edizioa]. Bilbo: Etor, Ediciones Mensajero: 69.

behar dutela, baina horretarako, lehengaiak, ikasmaterial duin eta egokiak, behar dira. Sortu dira herri-ekimenak hutsune hori betetzeko, eta irakasleak edo mintegiak ere saiatu dira zein bere kabuz, baina euskal kultura lantzeko material didaktiko adosturik gabe jarraitzen dugu.

Gainera, beste errealitate bat gehitu behar zaio horri. Dakizuen bezala, ikasleen eskuetara iristen diren testuliburu gehienak Euskal Herritik kanpo diseinatuak dira. Joan Mari Torrealdaik hamaika aldiz seinalatu zuen horren arriskua *Jakin* aldizkarian argitaratzen zituen euskal liburugintzaren azterketa haietan.

Euskarazko hezkuntza proiektu gehienak -zioen 2018an- Euskal Herritik kanpo diseinaturikoak dira, beste eta bestelako curriculum proiektuen arabera landuak. Jatorri horren markak nonahi agertzen dira: geografian, historian, oraingo zatiketa administratibo-politikoan...⁴.

Torrealdaik hitz horiek idatzi zituen garaian, testuliburuaren ekoizpenaren % 73 Euskal Herritik kanpoko argitaletxeetatik iristen zitzaigun. Kopurua ez da asko aldatu ordutik hona.

EIMAn, euskarazko materialgintza aztertzeke programan aritzea behaleku aparta izan zen horren ondorioez jabetzeko. Gure eskuetara iritsitako bi testuliburu datozkit burura. Batean, Historia Garaikidekoan, atal bat eskaintzen zitzairen XIX. mendean Europan gertatutako mugimendu migratzaileei. Arretaz arakatu nuen, aritua bainintzen gai hori aztertzen *Far Westeko Euskal Herria* idatzi nuenean. Banekien, Adrien Gachiteguy Mendebalde Urrun hartan ibili zelako datuak jasotzen, 1862 eta 1865 bitartean Alduden jaiotako 18 urteko gizonezkoetatik % 87k -% 87k!- emigratu egin zuela⁵. Edo, handik urte batzuetara, Ispaster, Ea, Ibarrangelu, Natxitua eta inguruko herri bizkaitarrak gazterik gabe gelditu zirela ia, mutilak artzain joanda, gehienak Idahora, eta neskak, berriz, euskal ostatueta lan egitera. Arakatu nuen bada, Historia Garaikideko liburu hura, eta... ezer ez. Panpetako *onbúari* kantatu zion Pedro Mari Otaño bezala Amerikara joandako milaka euskaldunen aipamen bakar bat ere ez.

⁴ Torrealdai, Joan Mari (2018). «Euskal liburugintza 2016», in *Jakin* 226: 100.

⁵ Douglass, W. A., & Bilbao, J. (2005. 1. argitaraldia: 1975). *Amerikanuak: Basques in the New World*. Reno (Nevada): University of Nevada Press Paperback Edition: 123.

Bigarren testuliburuak –Lehenengo Batxilergoko Matematikakoa–, «Ohar historikoak» izeneko atal bat zekarren gai bakoitzaren hasieran. Bertan, gertakari historikoen hautaketa bat, denbora-lerro batean: zer urtetan aurkitu zuten Santiago apostoluaren hilobia, *El Cantar de Mio Cid* noiz argitaratu zen... Berriro ere, euskal kulturaren aipamen bakar bat ere ez.

Bernart Etxepareren aitzinsolaseko hitzak etorri behar nahi eta nahi ez gogora: «[...] Eta kausa honegatik [euskara] gelditzen da abataturik [umiliaturik], ezein reputazione bage...».

Eta kausa horrengatik –nire hitzak dira orain–, testuliburu horiekin elikatzen diren gazteek ondoriozta dezakete gure aurrekoek ez digitela inolako kultura-ondarerik utzi; zibilizazioaren bazterretan bizi izan den herri basa bat izan dela gurea. Ondorio horretara iristeko arriskua beste inon baino larriagoa da Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaian. Gaztelaniaren edo frantsesaren literatura eta euskararena elkarren parean ezagutzen dituzte ikasleek. Gaztelaniaz eta frantsesez, egungo literatura ez ezik, klasikoen lanak edo lan horien zatiak ere irakurtzen dituzte. Eta euskaraz? Euskaraz ere lan garrantzitsuak irakurri ezean, euskaraz sortuak edo euskarara ekarriak, kultura sendo baten adierazpide gisa ikusiko dituzte gaztelania eta frantsesa; euskara, aldiz, hutsaren hurrengo irudituko zaie, hizkuntza eskas eta txatxu bat. Soilik gure literatura-ondarea eskolara eramanez lortuko dugu, gainera, hurrengo belaunaldiek kultura literario komun bat izatea. Memoria literario komun bat non, adibidez, XIX. mendearen bukaera aldera Pedro Mari Otañok txepetxari eskainitako bertso inspiratuak txoko bat izango duen:

Txotx batek aisa jasoko luke
nola karga gutxi duan,
bañan gustatzen zaio jartzia
adar sendoxiaguan;
amildu arren ez leike galdu
dakiyelako eguan,
bañan arkitzen baldin bada ere
burnizko aldamiyuan,
iru-lau aldiz xanpatutzen du
seguru ote dagan⁶.

⁶ Zavala, Antonio [bizitzaren egille eta bertsoen biltzaille] (1993). *Pedro Maria Otaño eta bere ingurua* (I), Auspoaren Sail Nagusia, Sendoa: 403-405.

Galera da, nire ustez, gaurko gazteek ez gozatzea Otañok txepetxari eskainitako bertsoekin, inork ez dituelako bideratu bertso hori eta beste asko hain ederki kantatzen dituzten Unai eta Eñaut Agirre anaiengana.

Eta galera da, era berean, Jean Saint-Pierre «Anxuberro»k Lehen Mundu Gerran *Eskualduna* astekarirako idazten zituen fronteko kronikak ez ezagutzea. Piarres Xarrittonek kontatu zigun nola idazten zituen «Anxuberro»k kronika haiek:

Kanoi hotsaren artetik, karrikarte zoko batean, lursagar zakuen gainean jarririk, idazluma tzar bat hortz artean marruskatuz, soldadu lagunen berriak eta haien etxekoen arrangurak hausnartu ondoan, zarra-zarra, paper mutur baten gainean bere artikuluak zirrimarratzen zituen⁷.

Irudiak badu nahikoa indar gogoan iltzatuta geratzeko. Baina nor gogoratzen da gaur Anxuberroz?

Euskal Testuak izeneko gaia ematen nuen IRALEn. Batzuetan, hileko hamar testu onenen zerrenda osatzeko eskatzen nien ikasleei. Eta behin baino gehiagotan konprobatu nuen, lehengo eta oraingo testuak irakurtzen bagenituen ere —Bizenta Mogel, Virginia Woolf eta Mariasun Landa saio berean—, testu zaharrek postu ona lortzen zutela *the top ten* horretan. Axular beti agertzen zen; Larramendik bere hiztegiari egindako hitzaurrearen pasarteren bat ere faboritoen artean egoten zen. Baldintza bat bete behar da, ordea, horretara iristeko: irakasleak balioa ematea ikasleen aurrean jarri duen testuari, eta ikaslea horretaz ohartzea.

«Memoria literario komun» baten beharra aipatu dut. Frantziako Gobernuak Hezkuntza Ministerioaren programetan ere presente dago ideia hori (*une culture littéraire partagée*)⁸. Espainiako Hezkuntza Ministerioko curriculumean, berriz, Historiako atalean, «memoria kolektiboa»ren garrantzia azpimarratzen da⁹. Antza, gure artean «kultur transmisioa» deitu dugun hori kezka zabaldua da gaur egungo

⁷ Xarriton, Piarres (2003). *Jean Saint-Pierre «Anxuberro»*. Bidegileak bilduma. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: 13.

⁸ Programme de français de première des voies générale et technologique. <https://www.cimf.ca/wp-content/uploads/2020/11/Programme-de-Francais-Dapres-le-BOEN-special-no-1-du-22-janvier-2019.pdf>

⁹ Currículo LOMLOE. Bachillerato. Historia de España. <https://educagob.educacionyfp.gob.es/curriculo/curriculo-lomloe/menu-curriculos-basicos/bachillerato/materias/historia-espana/desarrollo.html>

gizarte globalizatu eta hiperinformatuetan. Hezkuntza Sailaren curriculum-dekretuan ere ageri da (77/2023), honela adierazita:

Talde-identitateak komunitateen barruko lotura kultural eta afektiboen ondorioz sortzen dira. Neurri handiagoan edo txikiagoan, ezaugarri berberak partekatzeak, eta horiei lotuta sentitzeak, kide izatearen sentimendu komun bat sortzen du...¹⁰.

«Kide izatearen sentimendu komun bat», ingelesez hainbeste aipatzen den *the sense of belonging* delako hori. Horretarako —gazteek euskal komunitateko kide izatearen sentimendu hori izan dezaten—, «testuen corpus bat konfiguratzea» funtsezkoa dela dio aipaturiko curriculum-dekretuak. Hau da, funtsezkoa dela kultura-ondarearen obrak corpus batean jasotzea. Behar horri erantzun nahian jarri zen abian, hain zuzen ere, *Noeren ontzia* egitasmoa. Hari buruzko zehaztapenak emango dizkizuet jarraian.

Noeren ontzia

Garai eta euskalki guztietako testu hautatuak jasoko ditu *Noeren ontziak*, euskaraz sortuak edo beste hizkuntza batzuetatik itzuliak. Gaurko ortografiaz eta morfologiaz aurkeztuko dira, arretaz editatuta, eta jatorrizkora jotzeko aukera eskainiko da. Argazki edo bestelako irudiak ere izango ditu, eta testu guztiak etiketatuta egongo dira, erabiltzailea erraz irits dadin haietara. Testuaren gaiarekin lotutako audioetara edo bideoetara jotzeko aukera ere izango du informazio gehiago nahi duenak.

DBHko eta Batxilergoko ikasleak gogoan hartuta diseinatu da batez ere webgunea, baina baliagarria izan nahiko luke unibertsitateko ikasleentzat ere, eta baita euskaltegiri zein hizkuntza-eskolentzat ere, ikasmaterialak prestatzen diharduten Berritzegune eta argialetxeentzat, edota Irakurketa Plana hornitu nahi duten ikastetxeentzat.

Momentuz, zazpi ataletan sailkatu ditugu testuak: Historia, Herri-kultura, Hizkuntza, Literatura, Ahozko Literatura, Gaurko Gizartea eta Abestiak. 170en bat testu igo ditugu orain. Udazkenean, beste 50en bat igotzeko asmoa dugu.

¹⁰ 77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Eman dezagun Historia irakasle batek Lehen Mundu Gerrari buruzko testu bat nahi duela, gelan irakurtzeko. Bada, bilatzailean «Lehen Mundu Gerra» idatzi, klik egin, eta garai horri buruzko artikulua, kronikak, testigantzak, abestiak, bertsoak aurkituko ditu. Hizkuntza irakaslea euskararen historia soziala lantzen ari dela? Bada, berdin: bilatzailean idatzi, klik egin, eta hortxe izango ditu Kardaberaz, Humboldt, Emeterio Arrese, Piarres Larzabal, Joan Mari Torrealдай, Koldo Izagirre edo Mikel Zarateren pasarteak. Klasikoek ere izango dute tokia. Gaurko gaiek ere bai: immigrazioa, krisi klimatikoa, justizia soziala... Eta baita, esan gabe doa, emakumeek ere.

Noeren ontzian jasota geratu dira, esate baterako, emakume batek sinatutako lehen euskal liburuaren egileak, Bizenta Mogeak, *Ipui onak* liburuaren hasieran jarri zituen hitzak. Ez ziren meritu gutxikoak izan. XIX. mendearen hasiera hartan, eta baita geroago ere, emakume idazle askok gizonezkoen izenekin sinatzen zituzten beren lanak. Gogoratu Charlotte eta Emily Brontë ahizpak, Ingalaterran. Edo, Espainian, Cecilia Böhl de Faber hura, bere liburuak Fernán Caballero izenez sinatzen zituenak. Gure Bizenta Mogel, pseudonimo baten atzean ezkutatu beharrean, ausarki mintzatu zitzairen liburuaren azalean emakume baten izena ikusita *sinuka*, imintzioka, hasiko zirenei:

Nola nik sinetsaraziko diet askori euskaratu ditudala erdaldun jakitunek argitaratu dituzten ipuinak? [...] Horretarako behar litzateke jakitea euskara, gaztelania eta latinezko hiru hizkuntzak. Zein gauza sinesgaitza neskata batengan!¹¹

Garai berriagoetara etorrira, koka gaitezen Bilbon, 1937ko ekainean. Han dabil George Steer, *The Times* egunkariko gerra-korrespontsal hegoafrikarra, eta Artxandara igotzen ikusi ditu hiria defendatzeko azken ahalegina egitera doazen batailoiak.

Gaua heltzean –idatziko du *The Tree of Guernica* (Gernikako Arbola) liburuan–, batailako kearen eta sugarren eta zalaparta etengabearen artean, euskal infanteria abertzaleko hiru batailoirik hoberenak bidali zituzten gora, azken eginahala egitera. Kirikiño, Itsasalde, Itxarkundia. Demokraziaren

¹¹ Mogel, Bizenta A. (1963). *Ipui onak*. Auspoa Liburutegia 28: 37. [Grafia gaurkotuta, Noeren ontzian agertzen den bezala).

aldeko giza sakrifizioaren historian, biziko ahal dira betiko haien izenak! Lur emankorretik ereinotza sortzen den bitartean, izango dira hostoak haien oroitzapena koroatzeko. Heroiak, agurtzen zaituztet! Ekintza etsia zen, eta hori jakinda ere, abestuz igo ziren gudari haiek su-lerrora¹².

Beraz, idazki-mota asko, genero guztietakoak, jasoko ditu *Noeren ontziak*, ez literarioak bakarrik: elkarrizketak, testigantzak, gutunak, bando-, panfleto- edo mitin-zatiak edota prentsa-artikuluak (Gasteizko Martxoaren 3ko gertakarien lekuko izan zen Juan Jose Zearretak aste hartan bertan *Anaitasunan* argitaratutakoa, esate baterako). Testu esanguratsuak betiere, historialari batek bere ikerketarako aintzat hartuko lituzkeenak, eta irakasleari, mikroistorioetatik abiatuta —historia lokaletik eta lehen mailako iturri dokumentaletatik abiatuta—, makrohistoriaren edo historia orokorraren kontzeptuak lantzeko baliatuko zaizkionak.

***Noeren ontziak* zer helburu bete nahi dituen**

Lehenengo helburua aipatu dugu: gure aurrekoen ondarea jasotzea. Ez bakarrik euskaraz dagoelako, baizik eta, Mitxelenaren hitzetara itzuliz, «sakonagoko zerbait» adierazten duelako. Neuretzat ere, bizi guztian arlo honetan aritu ondoren, ontzian jaso ditugun zenbait testuren egileak erabat ezezagunak ziren: Jean Saint-Pierre «Anxuberro» bera, Martin Irabola, Beñat Karrika, Perpetua Saragueta. Haien oroitzapenari ereinotzeko koroarik ez diogu honezkero jarriko, baina atera ditzagun behintzat liburutegi-zokoetatik eta lehen planora ekarri. Gazteek euskal munduaz duten irudia zabaltzen lagunduko digute.

Baina badu *Noeren ontziak* beste helburu bat ere, irakurmenarekin estuki lotua. Hemen, arazo-egoera zein den esplikatu beharrik ez dago. Denok dakigu azken urteetako PISA eta PIRLS probetan emaitzak kaskarrak izan direla irakurmenaren atalean. Horren aurrean, 2018an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Euskadiko Irakurketa Plana¹³ argitaratu zuen Heziberri 2020¹⁴ hezkuntza-

¹² Steer, G. L. (2019). *Gernikako Arbola. Gerra modernoaren landa-azterketa bat*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia: 340. Itzulpena: Koro Navarro.

¹³ Hezkuntza Saila (2018). Euskadiko Irakurketa Plana.

¹⁴ https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_sist_educativo/eu_def/adjuntos/000009e_Pub_EJ_heziberri_2020_e.pdf

eredu pedagogikoaren barruan. Aipaturiko plan horrek «askotariko testuak» nahiz lexikoa lantzearen beharra azpimarratzen zuen, eta ikastetxe bakoitzak bere irakurketa-plana diseinatzeko edo eguneratzeko pausoak zehazten zituen. *Irakurgunea* webgunea ere zabaldu zen, eduki guztiak bertan kokatzeko. Berriro ere, ordea, behar-beharrezkoena falta zen: «askotariko testu» horiek ez ziren inon ageri.

Falta zen, hain zuzen ere, *Noeren ontzian* jasotzen ari garena: estilo, erregistro, tonu desberdinetako testuak. Tamalgarria da, izan ere, Derrigorrezko Hezkuntzaren amaieran, gazteek testuliburuetakako edo apunteetakako euskara besterik ez ezagutzea. Inor ez da irakurtzera zaletzen —inork ez du *la joie de lire*, ‘irakurtzearen poza’ sentitzen— eskolako apunteak irakurtzearen poderioz; inor ez da hizkuntzaz maitemintzen prosa didaktikoa, euskarazkoa edo beste edozein hizkuntzatakkoa, irakurrita. Askotariko idazkerak ezagutzeak ahalbidetzen du, gainera, nork bere idazkera garatzea.

Pentsatzen jarrita, deigarriak dira irakurketaren inguruko zenbait ohitura. Eskolak irakurtzeko gaitasuna bermatu behar duela errepikatzen dugu; irakurtzeko ohitura finkatzea nahitaezko baldintza dela ikaskuntza ondo bideratzeko eta garapen pertsonalerako¹⁵; are gehiago, irakurritakoa zuzen interpretatzeko gai izatea ezinbesteko bihurtu dela, desinformazioa eta manipulazioa jaun eta jabe diren garaiotan. Eta, hala ere, askotan etxerako uzten da irakurtzeko lan hori («irakurri testu hau biharko» edo «irakurri liburu hau hilaren bukaerarako»). Beste irakasgai batzuetan ez da holakorik gertatzen: Matematika irakasleak eskolako denbora eskaintzen dio problemak ebazteari; Heziketa Fisikokoak ez die ikasleei esaten: «Biharko, eman hamar buelta korrika auzoko parkeari». Berdin jokatu beharko litzateke irakurketarekin ere, eta, eskola-orduetan, eta irakasgai guztietan, parentesiak zabaldu irakurtzeko.

Irakurtzeko esan dut, eta ez *irakurmena lantzeko*. Izan ere, beldur naiz ez ote dugun ahaztu, tertulia dialogikoek, estrategia kooperatiboek eta elkarreragina sustatzeko dinamikek itsututa, irakurtzeak ez duela beti irakurmena lantzea izan behar. Edozein irakaslek, nola Historiakoak hala Fisikakoak edo Biologiakoak, tartetxo bat egin dezakeela noiznahi testu bat irakurtzeko ikasleei, edo ikasleek berek irakur dezaten. Hizkuntza-lanketarik egin gabe. Irakurri, testuak duen interesagatik, hizkuntzaz ahaztuta. Eta ikasleak hari buruzko ariketa aspergarriekin zamatu gabe.

¹⁵ 76/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Batzuetan, ikusi irakurmena lantzeko prestatzen diren unitate didaktikoak, eta Esoporen fabula hura dator burura. Ezagutuko duzue. Mendi bat ernari zegoen, eta, erditzeko unea iritsita, emaginik ez zuen. Haren aieneak eta kexak...! Martin Goihetxek honela kontatu zuen 1852an:

MENDIA ERNARI

Mendi bat aspaldi lehen
erdi beharrez zagoen,
eta emagiñik etzuen.
Haren ay eta plaiñuak
urrun ziren adituak:
Yendeak ikharan zauden
zer yalgi behar othe zen:
orok zuten ikhus uste
Paris oso bat bedere:
Badakizu zer zen agertu mundurat?
Sagu bat¹⁶.

Horazioren hitzetan: *Parturient montes, nascetur ridiculus mus*.

Tarte bat egin, parentesi bat zabaldu, adibidez, Txema Larreak jasotako kontakizun labur hau irakurtzeko.

OGIAREN LILURA

*Zumarragako Sagaspe baserriko
aitonari Julian Alustizak jasoa*

Aita-amak eta zortzi senide ginen gu denok eta lau librako ogia izaten genuen aste guztirako, pusketatxo bana partitzen zigun amak bazkaltzerakoan. Baina gauean, gu umeak ogi eske izaten ginen berriz ere:

¹⁶ Goihetxe, Martin (1852). *Fableac edo aleguiac, Lafontenenetarik berechiz hartuac*. Baiona: Forec eta Lasserrec Imprimatuac: 45.

—Amatxo, ogie, ogie...

—Ez dago, ordea, ogirik. Ez dago aste guztirako —erantzuten zigun berak.

—Ikusi behintzat, amatxo, ikusi ogie —guk umeok.

Eta amak kutxatik ogia atera eta erakutsi egiten zigun, horrekin konformatzen ginen beti¹⁷.

Bere laburrean, esanahi handia du irakurri dizuedan pasarteak, poema bat dela ere esan daiteke. Pentsatzekoa da bere indarra gaurko gazteei ere iritsiko zaiela. Eta batzuei ahaztezina egingo zaiela, nola niri Urkizuko bidean Lizardiren poema zati hura («Oi, zein dan ituna / beera-bear au! / Nik ez nai eguna / biurtzerik gau!»), baldin eta itotzen ez badugu adberbioak edo juntagailuak lantzeko aitzakiatzat hartuta. Labur esanda, irakurri eta bakean uzteko testuen artean sartuko nuke nik, hain zuzen ere Lizardiren poesiaz ari zela Gabriel Arestik emandako arrazoi beragatik:

Lizardi ezta esplikatzen. Lizardi konprenitu egiten da. Egun batean gizon eskolatuak etorriko dira, eta gorputz edo hilotz ustel balitz bezala, autopsia zehatz bat egiteko asmoa ekarriko dute. [...] Egun batean, badakit, filologo bat etorriko da eta Lizardiren poesia aztertuko du puntatik hondoraino. Lizardiren poesiaren gorputza hilen du ganibet-kolpeka [...]. Egun hartan nire bakardadea haundiagoa izanen da. Egun hartan birao bat esan beharko dut¹⁸.

Noeren ontziari buruzko azken oharra

Testuei buruz ari naiz etengabe, baina, testuez gain —aipatu dut hau lehen, eta zehatzago esplikatuko dut orain—, gaiarekin lotutako ikonografiak ere (grabatuak, argazkiak, marrazkiak, mapak, grafikoak...) garrantzi berezia izango du *Noeren ontzian*. Gehienetan, irudi horiek ez dira testuaren apaingarri hutsa izango, baizik eta testuaren edukiarekin batera azertu beharreko elementuak.

¹⁷ Jose Maria Larrea [edit.], *Ele neumatikoak*, Pamiela, 1994.

¹⁸ Gabriel Aresti. «Lizardi, poeta». *Zeruko Argia*, 1964-IV-19.

Eta bestelako erremintak ere izango dira. Behin entzun nion ikasle bati –Mikel Leunda zuen eta du izena, Teknologia irakaslea– euskal curriculumak txertatzeko «erreminta-kutxa» bat behar zutela bere irakasgaian, era guztietako tresnak izango zituen: irakurgaiak, bai, baina baita bideoklipak, audioak, dokumentalak eta abar ere bai. Ideia hori aintzat hartuta, *Noeren ontziko* testu asko multimodalak izango dira. Esate baterako, *Linguae Vasconum Primitia*eren hitzaurreko pasarte baten aldamenean, Imanol Epeldek harekin egindako *Etxepare RAP* bertsioa egongo da –Etxepare horregatik hartzen baitugu klasikotzat, haren hitzak rapeatu eta oraindik ere zerbait esaten diotelako gaurko irakurleari edo entzuleari–; eta gainera, horrez gain, Frantziako Liburutegi Nazionalaren funts digitalizatuetan (Gallican) sartu ahal izango gara, Etxepareren liburuaren edizio originalaren kopia bakarraren irudiak ikusteko.

Era berean, Gerra Zibilarekin lotutako testuak irakurtzean, Espainiako Liburutegi Nazionaleko argazki-bildumak, Southampton Unibertsitateko Bilduma Bereziak edo Kaliforniako San Diego Unibertsitateko argazki eta bestelako dokumentuen funtsak kontsultatu ahal izango dira. Era horretan, Kahoot! eta Escape Room eta bestelako pitxi-pitxi digitalak baino harago joanez, unibertsitate, liburutegi edo artxiboetako bilduma digitalizatuetan sartzeraz eta informazio-iturri fidagarriak erabiltzera ohituko dira ikasleak.

Bukatzeko aldera, *Noeren ontzian* sartuta, testu horietako bi erakutsiko dizkizuet.

Lehenengoa Pete Aguerberry zuberotarraren biografia da. Kaliforniako Death Valley Parke Nazionalan, hau da, Heriotzaren haranean, behaleku bat dago haren izena daramana. Aguerberryk 16 urterekin itsasoa zeharkatu, 1890ean, eta era guztietako lanak egin zituen Mundu Berrian: meatzari izan zen, artzain, diligentzia-gidari, izotz-saltzaile..., baita pilotari ere, San Frantziskon. xx. mendearen hasieran San Frantziskon jokatzeko ziren pilota partidek oihartzun handia zuten prentsan. Pantailan ikusten duzuen albisteak 1901eko abenduaren 27an hiriko Eder Jai frontoian jokaturako partiden berri ematen du. Estekan klikatu, Kaliforniako prentsaren bilduma digitalean sartu eta albistea irakur daiteke.

Holaxe ibili zen Pete Aguerberry, batera eta bestera, bizimodua nola aterako, halako batean urrea, urre-meatze txiki bat, aurkitu zuen arte, hain zuzen ere, Heriotzaren haranean. Han bukatu ziren haren ibilerak. Etxetxo bat egin, eta hantxe bizi izan zen hurrengo 40 urteetan. Dirua behar zuenean, urre pixkaren bat kentzen zion meatzeari.

Aguereberryk maite zuen Heriotzaren haraneko paisaia munduz kanpokoa. Meatzetik 7-8 kilometrora, haranaren ikuspegi bikaina eskaintzen zuen gain bat zegoen, eta harainoko bidea ireki zuen eskuz, pikotx, pala eta eskorgekin. Gain hura irudian ikusten duzuen Aguereberry Point da gaur egun, urtero Parke Nazionala bisitatzen duten milaka turisten jomugetako bat. Bidea egiten halako lana hartu ondoren, hura erabiltzeagatik bidesaria eskatzeko esaten omen zion jendeak. Aguereberryren erantzuna: gauza eder bat ikusten uzteagatik ezin zela dirurik eskatu.

Erakutsi nahi dizuedan bigarren testua abesti bat da, Joxean Artzek idatzitako eta Mikel Laboak musikatutako *Gure bazterrak*. Hemen gauden gehienontzat, adinagatik, gure garaiko abestia; gazteentzat, aldiz, lehengo mendeko abestia. *Noeren ontzian*, Artzeren beraren azalpena dator aurrena: nola bururatu zitzaion poema, Mikel Laboarekin eta beste lagun batzuekin batera Agina mendiaren inguruetan zebilela.

Jarraian, *Eta sasi guztien gainetik* liburuan agertu zen bezala erakusten da poema, Jose Luis Zumetaren marrazkiarekin.

Bukaeran, Mikel Laboaren eta Ruper Ordorikaren bertsioak daude, eta baita kanta gaurko egunera ekarri duen Aitor Bengoetxea «Bengo»ren interpretazioa ere, abestia breakdancearekin fusionatzen duena.

Amaitzera noa. 1718. urte inguruan, Joanes Etxeberri, Etxeberri Sarakoak, jakitatearen aldeko hautua egitera gonbidatu zituen gazteak *Escual-herrico gazteriar* izeneko gutunean:

[...] deitzen ditut [gazteak], Minervaren josteta ezti eta kanta-alosien bidez, inorantziaren kontra egiten den gerla ohorezkora, eta batbederak batere arriskurik gabe anitz abantaila eder erdiets dezakeenera. Hau da gerla eder eta miragarri hura, zeinetan jakintasunak nahi baitu gizona altxatu, eta abantailatu, hala nola inorantziak nahi baitu jaurti, eta ostikatu¹⁹.

¹⁹ *Obras vascogadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri. 1712 (1907).* [Julio de Urquijoren edizioa]. Paris: Paul Geuthner: 93, 96-97.

Etxeberri Sarakoaren espirituak bultzatzen du *Noeren ontzia*. «[...] [haren] adore eta kemenagatik —idatzi zuen Arestik—, beti laudatu beharko dugu eskritore eta euskaltzale noble eta prestu honen entusiasmo miragarria»²⁰.

Joan dira urteak, joan dira mendeak, eta *inorantziaren* kontrako gerlak, jakintasunaren, humanismoaren aldeko lehiak, inoiz baino beharrezkoagoa dirudi garaiotan, sare sozialetako hotsak eta ardailak mendi-zelaiak estaltzear dauzkan honetan. Gero eta beharrezkoagoa, halaber, euskarazko kultura-produktuak erakusleihatara eramatea, eta, bereziki, gazteen eskuetara. Gure literatura-ondarea, eta kultura-ondarea oro har, hurrengo belaunaldiei pasatu nahi badiegu, beharrezkoak diren baliabide guztiak jarri beharko dira hezkuntza-komunitatearen eskura. Gero, horri Etxeberriren entusiasmo miragarria gehituko diogu.

²⁰ Gabriel Aresti (1986). "Joanes Etxeberri Sarakoaren sentimendu soziala eta kontzientzia nazionala" in *Artikuluak; Hitzaldiak; Gutunak. Gabriel Aresti-ren literatur lanak*, 10. Donostia: Susa [etab.]: 122-129.